



Zientzia

genero-ikuspegitik

komunikatzeko **dekalogo**a

Hitzaurrea

Martxoaren 8a da, [Emakumeen Nazioarteko Eguna](#). 2023ko Emakumearen Nazioarteko Egunaren leloak "*Mundu digital inklusiboa: Berrikuntza eta genero-berdintasunerako teknologia*" aldarrikatzen du. Inguratzen gaituen munduak Informazio eta Komunikaziorako Teknologien (IKT) garapenean eragina du eta, horrez gain, erabilera molda dezake jokabide diskriminatzaileak areagotu edo iraunarazteko. Beraz, mundu digital inklusiboa lortzeko, beharrezkoa da hainbat esparrutatik jardutea.

Testuinguru horretan, adibidez, komunikabideek funtsezko zeregina dute berdintasuna lortze bidera. Honen harira, otsailaren 9an, Zientziaren arloko Emakumearen eta Neskatoaren Nazioarteko Egunaren baitan [Generoa eta Zientziaren Komunikazioa](#) jardunaldia egin zen Bilbon. Bertan, zientziaren komunikazioaren esparruan genero-ikuspegia ezartzeko eta hobetzeko moduari buruz hausnartu zen hainbat ikuspuntutik.

Jardunaldi honekin, UPV/EHUko Kultura Zientifikoaren Katedratik, hausnarketa eta salaketa binomiotik beste binomio batera igaro nahi izan dugu: [gogoeta eta ekintza](#). Horren erakusgarri da gaur aurkezten den dekalogoak: *Zientzia genero-ikuspegiarekin komunikatzeko dekalogoak*, non laburbiltzen baitira egunean zehar hitzaldietan emandako gomendio eta ondorio nagusiak.

Kontuan izan gauzak asko hobetu direla, baina gaur egun gauzak oso ondo doazela eta berdintasuna lortuta dagoela zabaldua badago ere, pertzepzio hori ez da benetakoa. Beraz, komunikazio zientifikoari heltzen diozunean, eman garrantzia alderdi kualitatiboari, ez soilik kuantitatiboari. Ondorioz, ez hartu kontuan zenbat emakume zientzialari izendatzen diren, nola irudikatzen diren baizik.

Komunikabideak, komunikazio-lanak egiten dituztenak edo zabalkundearen esparruan lan egiten dutenak, genero-berdintasunaren aldeko eragile eta sustatzaile aktiboak dira. Horregatik, dekalogo honek zenbait estrategia eskaini nahi ditu komunikazio zientifiko hobea lortzeko, genero-ikuspegia duen zientzia-komunikazioa, edukiak idazten laguntzeko eta hedabideetan emakumeen presentzia areagotzen laguntzeko.

Dekalogoia

1. **Komunikazio arduratsua praktikan jarri:** ez dago komunikazio aseptikorik; beraz, kontziente izan behar da genero-ikuspegiari jaramonik egin gabe eginez gero, komunikazioa alborapenak eta aurreiritziak indartzeko tresna izan daitekeela.
2. **Kontuan izan ikerketa bat genero-ikuspegiak gabe egin ahal izan dela,** eta, beraz, emaitzak ezin direla orokortu. Genero-ikuspegia ikerketa-taldeen osaeratik askoz harago doa. Horrela, planteatutako galderak garrantzitsuak dira, uste dugunetik sortuko baitira eta hori generoaren arabera izan daiteke. Genero-ikuspegiak ere eragina du galdera horiei erantzuteko datuak lortzeko erabiltzen den metodologian eta datu horiek interpretatzeko sortzen den narratiban. Narratiba datuak bezain garrantzitsua da: normalean, datu-multzo berberak bat egin dezake hainbat narrazioekin.
3. **Ezari irizpide argiak iturriak hautatzeko orduan:** joan jatorrizko iturrira, bilatu emakume adituak solaskide gisa (nahiz eta batzuetan premiazkoa izan berehalako erantzun bat izatea eta horren aurrean zailagoa izan emakume zientzialarien kolaborazioa) eta lehenetsi merituen adituaren karguaren aurretik. Jarri harremanetan emakume zientzialariekin, ez bakarrik efemerideak edo STEM diziplinetan emakumeei buruzko albisteak daudenean. Praktika horrek emakumeek garatzen dituzten lan zientifikoak ikusezin bihurtzen laguntzen du.
4. **Emakume ikertzaileak normaltasunez tratatu,** gizonezko ikertzaile bat bezala: haien itxura, bizitza pertsonala, jatorria, adina edo ikerketarekin zerikusirik ez duen beste edozein aldagai aipatu gabe.
5. **[Ez erabili metafora mugatzaileak](#),** hala nola "kristalezko sabaia", "oztopo-lasterketa" edo "zulo beltza". Baliatu ekintzara gonbidatzen duten esamoldeak.
6. **Ezagutarazi emakume ikertzailea ondo identifikatuta,** adierazi haren izen-abizenak, lanpostua eta erakundea. Generikoaren eta inzialen erabilerak ikusezin bihurtzen baititu zientzialariak.
7. **Protagonista sinesgarriak eta imitagarriak sortu:** emakume ikertzaileak benetako merituen arabera tratatu, ez da beharrezkoa hauek salbuespenezko figurak bezala aurkeztea, eman ezagutzera ezohikoak izan beharrik gabe, gizonezko ikertzaile gehienak salbuespenezkoak ez diren bezala.
8. **[Hizkuntza ez-sexista, inklusiboa eta ez-diskriminatzailea erabili.](#)** Orokorra maskulinitzat hartzen dela jakinda, saihestu ere termino neutroen erabileraren arriskua, emakumeak ikusezin bihurtzen baititu. (Adibidez, gaztelaniaz, ez erabili "x", "@" edo antzeko flexioak).
9. **Edukiarekin bat datozen irudiak erabili,** emakume zientzialariaren presentzia "[loreontzi](#)" gisa agertzen dutenak ekidinez. Protagonistak lehen planoan eta kamerari begira erakutsiz eta, gogoan izan, ez da beharrezkoa bere jarduera edo kompetentzia justifikatzen duen elementurik sartzea, hala nola mantalak, laborategiko tresnak edo bestelakoak.
10. **Lana amaitutakoan, begiratu egindakoa eta hausnartu:** era berean tratatuko zenukeen testuko zientzialaria gizonezkoa izan balitz? Erantzuna ezekoa edo zalantzakoa bada: irakurri berriro dekalogoia.